

"Besteen odola"
Simone de Beauvoir
euskaratzailea: Oier Alonso Etxebarria
Ibaizabal, 2001

Liburuak eta bizitza antzekoak dira, zalantzarik ez, elkarren itzal baitira askotan; bizitzarik gabe ez litzateke libururik izango, eta libururik gabe bizitza gutxi eta bera kaskarra. Liburuetatik bizitza igarotzen baita, zeharka batzuetan, arrasto txikia utzirik, koska bat edo beste; edo zuzenean bestela, ubeldura latzak utzirik atzean, mina ere bai seguru asko. Liburuak urteen eraginez zahartu egiten dira, duintasunez batzuk, beti galai azaltzen diren gizonezko horien moduan, beti eder eta panpina ikusten ditugun emakumezko horien moduan; zakar besteak, bat batean joan egiten zaie gaztetasuna eta erori egiten dira urteen leizean. Ezagutzen ditugu bateko eta besteko adibideak, gizon zein emakume. Simone Beauvoir ezin esan zakar zahartu zenik, azken urtetan ere begiek gordetzen baitzuten gaztaroko indarra, gaztaroko argia, mundu berriak aurkitzeko grina; azken urteetan ere aurpegia lasaitasunaren isla zen: aurrean aurki zezakeenak ez zuela bera izutuko esanez bezala.

Beti izan zuen aurpegi gozoa, benazkoa baina gozoa. Denbora igaro ondoren, eta urte askotan Simone de Beauvoir Jean Paul Sartreren lagun-maitale-emazte-aitorle sindromearen pean bizi izan ondoren, gure aurrean hain zuzen, ikusle eta lekuko derrigortuak, badirudi halako buelta datorrela, termino guztiak (lagun-maitale-emazte-aitorle) hankaz gora jartzeko sasoia. Halaxe idatzi da Sartreri buruzko azken biografia ospetsua.

Ancienne philosophe bat omen egilea, Henry Levi, hain zuzen. Han nolabait mitoa hautsi egiten da. Egia da Simone Beauvoirrek ere mitoari bultzada bat baino gehiago eman ziola goitik behera, bere biografietan eta egunerokoetan. Nik, dena dela, Sartreri sekula aurkitu ez diona aurkitzen diot Simone Beauvoirri: grazia testuetan, eta duintasuna bizitzan.

Nobela honetan ere erakusten duen duintasuna. Ez baita zahartu, oraingo bederen.

El Diario Vasco, 2001-08-11